

TOLOSALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko irailaren 12a. IX. urtea. 2.642. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



L. TERRADILLOS

→ **Herriko gaztetxoaren erakusketa.** Ibarako Benito Izagirre kultur etxean hilaren amaierara arte ikusgai dago Ibarako eta Tolosako 5 eta 11 urte bitarteko 16 gaztetxok eginiko lanen erakusketa. Marce Tenaren marrazketa, pintura eta adierazpen artistikoa tailerlean parte hartu zuten iragan ikasturtean, eta bertan ikasi eta eginikoa jarri dute jendaurrean. Erakusketan ikusgai dauden bi lan, gainera, sarituak izan dira, Uxue Estibarizen *Ura*, eta Satya Apeztegiaren *Gipuzkoako plazan udaberria*. Bigarren urtez eskaini du Tenak tailerra, eta «oso pozik» dago, harrera «oso ona» izan duelako. Ikasturte berrirako ere osatua du taldea, izako errepikatzaileekin. ◯4

Iker Karrerak marka eginez irabazi du Tor des Geants lasterketa

330 kilometroko ibilbidea 70 ordu eta 21 minutuko denborarekin amaitu du; amezketarrak marka bost ordutan hobetu du ◯3

Mendietan modu egokian ibiltzen ez diren motozaleak salatu dituzte

Amasa-Villabonako Aizkardi mendi elkarteak salaketa jarri du Gipuzkoako Foru Aldundian ◯7

Sei gune eta zazpi kilometro ditu Tolosako Kilometroak jaiko zirkuituak

San Esteban, Usabal, Zabalarreta, San Blas, Zumardiaundia eta Lizardi plaza dira gune nagusiak ◯5

Tolosako baratze parkean, giza harremanak jasotzen

Bi hilabete bete dira Iurreamendin baratzeak martxan jarri zirenetik; erabiltzaileak nahiz sustatzaileak gustura daude egitasmoarekin ◯2



Tolosako Iurreamendiko baratzeak barazki ederrez beteta daude. HITZA

matricula
irailak 2 -13

bulego ordutegia
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00

Aitzol
Udal Euskaltegia

Rondilla 34-B 3.
20400 TOLOSA
tel.: 943651006 / 943652343

Tolosarrak nekazaritzara gerturatu eta lurra modu ekologikoan lantzen ikasteko egitasmoak eman ditu lehen fruituak. Iurreamendiko baratze parkean, ordea, giza harremanak izan dira erabiltzaileentzat, uztarik oparoena.

Tolosarren elkargune berdea

Itzea Urkizu

Bi hilabete joan dira jada, Iurreamendiko lursailetan baratze parkeak martxan jarri zirenez geroztik. Denbora horretan guztian, uztailan lur eremu hutsa zena parke berde bilakatu da, eta baratzezainak ari dira jada fruituak jasotzen. Besteak beste nekazaritzara hurbiltzeko egitasmoa zenak, ordea, harreman sareak ere sortu ditu, eta Iurreamendi egoitzako arduradunak, Tolosako Udala, Kutxako Ekogune fundazioa nahiz erabiltzaileak «oso pozik» azaldu dira, Iurreamendiko baratzeetan herritarren artean sortu den elkargunearekin.

Ibai Iriarte alkateak, baratzezainek egiten duten lana azpimarratu nahi izan du: «Baratzeak martxan daude jada, jendea egunero-egunero lanean ari delako. Indarrez ari dira, gainera, jardun honetan, eta sortu dute jada baratzezainen elkartearekin». Horrela, Iurreamendiko baratze parkeetako erabiltzaileen elkarte eta zuzendaritza, erabiltzaileen eta udalaren arteko bitartekari lanetan arituko da, uanean uneko beharren arabera.

Baratzeak erabiltzen hasi aurreko ikastaroarekin, eta bi hilabetean lurra emandako esperientziarekin, nekazaritza ekologikoak Iurreamendin hartu duen garrantzia ere aipatu nahi izan dute udaleko nahiz Kutxa Ekoguneko arduradunek. Izan ere, «ingurugiroarekiko eta osasunarekiko errespetua baratze hauen helburuetako bat izan da hasieratik». Iurreamendin ereindako produktu guztiak, horrela, garaian garaikoak izango dira, eta Iriartek azaldu duen bezala, «nekazarien lana baloratzeko balioko du honek: baratze batek zenbaterainoko lana dakarren, zer eskaintzen duen, aisirako zein aukera ematen dituen...».



Erabiltzaile nahiz egitasmoa sustatzaile guztiak gustura agertu dira baratzeen funtzionamenduarekin. I. URKIZU

Honenbestez, udazkena gerturatzarekin batera, pixkana bestelako fruituak erein eta biltzen hasiko dira 81 lursailetak erabiltzaileak.

Aisirako gune berria

«Azpimarratu beharrekoa ez da baratzeagintza ekologikoa bakarrik», Ekoguneko baratze proiektuen arduradun Xabier Estebanek azaldu duen moduan.

Horrela, Estebanek Iurreamendi egoitzaren aurreko lursaila herritarren bilgune bilakatu dela nabarmendu nahi izan du: «Baratze parkeen egitasmo osoaren helburu guztiak borobildu dira Tolosan, izan ere, bi hilabetean baratzeek izan duten aurrerakadaz harago, elbarri eta langabeak ere ari dira baratzeak ustiatzen, gizartea baserri mundura gerturatu da, eta harreman sareak sortu dira belaunaldien artean».

Herri baratzeen egitasmoak Iurreamendiko egoiliarrei ere sekulako aldaketa ekarri diela azaldu du egoitzako zuzendari Elena Basagoitiak, beren bizi kalitateak hobera egin duela azpimarratuz: «Egoitza herrigunean ez dagoe-

batean, eta oso aberasgarria da egoiliarrentzat, jendea hemen gora eta behera ibiltzea; erabiltzaileekin oso harreman ona sortu da hasieratik, eta baratzeetarako aholkuak ematen ere aritzen dira egoiliar batzuek».



Udalak lan handia egin du, eta herri guztietan beharko luke horrelako gune batek»

JOSU OTAÑO
Baratzezaina

«Bi hilabetean bizitza handia hartu du honek, eta hasiera behintzat oso ona izan da»

URKO PEÑA
Baratzezaina

nez, lehen senide eta lagunak bakarrik bertaratzen ziren gehienetan. Orain, ordea, baratzeek herrira hona ekarri dute neurri

Parkea, beraz, aisirako gune berri izatera pasa da, tolosar askok egunero bisita egiten baitute bertara. Honen harira, Ibai Iriartek bertaratze deia egin die herritarrei, «baratzezainen lana ezagutu eta paseo bat ematera».

Aipatzekoa da, tolosarrentzako aisialdi gune berri honetan, udalak baratzeen arteko bideak zabaltzeko asmoa duela, eta era berean, fruta-arbolak landatuko dituztela baratzeen inguruko lur zati txikitian.

Aukera berri bat

Urko Peña eta Josu Otaño ez zuten, orain dela gutxira arte, trebetasun handiegirik lurra lantzeko kontuetan. Udalak eta Ekogunek sorturiko herri baratzeen egitasmoak, ordea, aukera berri bat eskaini die beren egunerokoan, langabetu eta elbarri diren aldetik. Erabiltzaileen elkarterko zuzen-

daritzako kide dira biak, eta «sekulako esperientzia» izaten ari dela nabarmendu dute.

Udalak «lan handia» egin duela uste du Josu Otañok: «Herri guztietan beharko luke horrelako gune batek». Langabezia egonda, eguna zereginekin betetzeko aukera ematen dio, eta era berean, asko ikasten ari dela azaldu du: «Gainera, lagunak egiten ari naiz, eta emaztearekin batera lursaila landuta, janari pixka bat etxera eramateko aukera ere ematen digu».

Urko Peña, berriz, elbarri bideraturiko lursailetakoa bat ustiatzen du. Beste baratzeak bezala lurzoruaren parean egon beharrean, bere partzela altuago dago, eta gurpildun aukitik lurra erraztasunez lantzeko aukera ematen dio honek. Jendearren erantzun ona azpimarratu du: «Bi hilabetean bizitza handia hartu du honek, eta hasiera behintzat oso ona izan da, jada produktuak kontsumitzen ari gara eta. Herritarrek gonbidatuko nituzke, Iurreamendiko eremua nola aldatu den ikustera».

● tolosa@hitza.info

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanak. 08:00etatik 14:00etara etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handia duen emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka, gainera. Interesa duen edonork dei dezala ondorengo bi telefono zenbakietako batera: 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.



Garaian garaiko produktuak eraitzen dituzte baratzezainek. I. URKIZU



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Uganen eta Kalebeheran auzoko jaiak ospatuko dituzte

Tolosako auzoan egun bakarreko egitaraua antolatu duten bezala, alegiarrek hiru eguneko osatu dute

Asier Imaz

Tolosako eta Alegiako auzo banatan jaiak ospatuko dituzte ondorengo egunetan. Egun bakarreko nahiz hiru eguneko egitaraua osatu, festa-giro ederra bizitzeko aukera egongo da Uganen eta Kalebeheran.

Ikaztegieta ondoan dagoen Tolosako Ugane auzoan larunbatean ospatuko dituzte auzoko jaiak. 12:00etan emango diote irteera festari, eta baita txirindulari probari ere. Ikaztegieta amaieran dagoen Zubiaurre tabernaren paretik irtengo dira txirindulariak, eta helmuga Uganen izango dute. Hortik aurrera, goizaldera bitarte auzoko festek ez dute etenik izango. Azken orduko albistean

artean, mondejoak dastatzeko aukera egongo dela esan dute antolatzaileek. Jan kontuekin jarraituz, bazkaria eta afaria egongo direla ezin ahaztu. Horrez gain, haurrentzat jolasak ere ez dira faltako. Azkenik, Imanol Mendizabalen eta Aitor Arraizaren erakustaldia azpimarratu behar da, izan ere, bi ikaztegiatarrek pisu eta disko jaurtiketa froga egingo dute Uganen.

Hiru egun Kalebeheran

Alegiako Kalebehera auzoan ostiralean hasi eta igandean amaituko dira jaiak. Hiru eguneko egitarauari suziriekin eta buruhandiek emango die hasiera alegiarrek. Ondoren, tortilla txapelketaren txanda izango da, eta eguna amaitzeko, Alegian hain ohikoa den zahagiardoa egingo dute, trikitilarien emanaldiaren aurretik. Aipatu, herri bazkaria jaien azken egunean egingo dute-la, hau da, igandean. Kalebeherako jaien antolatzaileen esanetan, aurtengo menua paella izango da.



luz, aurtun bezala, Tolosako Ugano auzoan bertsolariek saioa eskaini zuten. INIGO TERRADILLOS

↓ Egitarauak

ALEGIAKO KALEBEHERA

IRAILAK 13, OSTIRALA

- 19:00. Suziriak eta buruhandiak.
- Ondoren. Patata tortilla lehiaketa.
- Iluntzean. Zahagiardoa.
- 23:00. Trikitilarietako erromeria.

IRAILAK 14, LARUNBATA

- 12:00. Krosa.
- 16:00. Pala txapelketa eta ume jolasak, baita zinta lasterketa ere.
- Iluntzean. Zahagiardoa.

- Ondoren. Bertsolariek egongo dira.

IRAILAK 15, IGANDEA

- 12:00. Sutarri dantza taldea.
- 12:30. Sardin erreak eta txakolin probaketa.
- 15:00. Herri bazkaria.
- Ondoren. Pilota eta pala txapelketako finalak.
- Iluntzean. Zahagiardoa.
- Gauean. Mus txapelketa.

TOLOSAKO UGANE AUZOA

IRAILAK 14, LARUNBATA

- 12:00. Uganeko XV. Txirindulari-

lari igoera. Irteera ikaztegiatiko Zubiaurre tabernaren paretik hartuko dute txirindulariek.

- Jarraian. Hernaniko bertsolari gazteek animatutako poteoa, pintxo eta guzti. Mondejoak ere egongo dira.
- Ondoren. Pisu eta disko jaurtiketa, Imanol Mendizabal eta Aitor Arraizaren eskutik.
- 14:00. Auzo bazkaria.
- Arratsaldean. Ume jolasak, toka, mus txapelketa...
- Segidan. Saskiaren zozketa.
- 21:00. Auzo afaria.
- Jarraian. Santuipuko konzertua.

Hiru egun korrika ibili ondoren Iker Karrera nagusi

Italian lehiatzen den Tor des Geants lasterketa irabazi du amezketarrak, aurreko marka hobetuz

A. Imaz Amezketa

Iker Karrera amezketarrak Italian jokatu den Tor de Geants lasterketa irabazi du, 70 ordu eta 21 minutuko denborarekin. Aurreko marka bost orduetan hobetu du

Karrerak. Igande goizean irten ziren mendi korrikalariak, eta helmugara iristen hiru egun behar izan zituen. Ibilbidea 330 kilometro osatzen zuten, eta guztira 24.000 metro igo behar izan dituzte. Mundu mailako lasterketa horretan, txinatar bat hil da, Yuang Yang, erori eta buruan kolpea hartuta.

Lehen kilometroetan buruan multzo bat osatu zen, eta amezketarra bertan zen. 60. kilometroan aurrera egitea erabaki zuen Karrera, nahiz eta Franco Collé-

gertutik jarraitu. Anoa guneetan frantziarrek topo egiten zuten euskaldunak, baina beti aurretik. Proba amaieran, Karrera aurrera auzoan irabaztea izan zen: Oscar Perez. Bien arteko denbora murrizten hasi zen, ordubetara jarriz azken gauaren faltan. Denbora horrek beheranzko joera hartu zuen. Helmuga, ordea, ez zen urruti eta azkenean, Iker Karrera 25 minutuko alde ateradio Perez.

Lasterketa bukatu ondoren, Euskadi Irratiarekin hitz egin

zuen Iker Karrera. Proba uste baino hobeto amaitu zuela esan zuen amezketarrak, «fisikoki ondo, eta buruz, horrelako lasterketa handia irabaztean, gutxitan izaten da poz handiagorik». Loaren inguruan galdetuta, 70 orduetan bi ordu exkax lo egin zuela onartu zuen: «Lehen egun guztia jarraian egin dut, gelditu gabe. Bigarren gauean ordubete egin dut, eta ondoren, beste bi edo hiru geldialditxo egin ditut, ordu erdi edo ordu laurdeneoak. Batzuetan loak jotzen ninduela nabaritzen

nuen, baina burua beste gauza batzuetan jarri eta segi eta segi jarraitu dut». Inoiz baino gehiago jan duela ere esan zuen Karrera, txakalaldiak ekidin nahian, baina horrelako proba batean «beldur» horrekin ibiltzen zarela ere adierazi zuen amezketarrak: «Bardakizu zuloren bat izango duzula, baina ez dakizu noiz iritsiko zaitzun. Zorionez, izan ditudan ez dira handiak izan, eta ongi egin diet aurre». Azkenik, denboraldi-ko helburu nagusia bete duela esan zuen Iker Karrera.



XVII. HITZA Udako Argazki Lehiaketa

1. Saria

Bermeoko **Lurdeia landetxean**, bi pertsonentzako asteburu osorako egonaldia.

2. Saria

Tolosako **Beti-Alai jatetxean**, bi pertsonentzako asteburuko otordua.

3. Saria

Txindokiko Itzala abentura parkerako bi sarrera.

Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!



Jende ugari izan zen herenegun egin zen erakusketaren inaugurazioan, Ibarako kultur etxean. I.T.

Sormena txikitatik lantzen


Ibarako kultur etxean ikusgai daude Marce Tenaren tailerreko ikasleen lanak, hilaren bukaerara arte

Iñigo Terradillos Ibarra

Sormenez beterik daude Ibarako kultur etxeko hormak. Koadroak, kareetak, kaxak, collage-ak... askotariko gai, paisaia, pertsonaia eta kolorez osatuak. Guztiak Ibarako eta Tolosako gaztetxoek eginak dira, eta hilaren amaierara arte izango dira bertan ikusgai.

Marce Tenaren marrazketa, pintura eta adierazpen artistikoa tailerrean parte hartu duten 5 eta 11 urte bitarteko 16 gaztetxo dira lanen egileak. Helduentzat ikastaroak ematen ditu, eta aurtun, bigarren urtez haurrekin aritu da ibartarra. «Lehen urtean zortzi neska-mutil animatu ziren, eta aurtengoa bikoitza izan ditut. Harrera oso ona izan dute tailerrek, eta oso pozik nago», dio Tenak. Gainera, hurrengo urterako ere gaztetxo asko izango dituela espero du, dagoeneko errepikatuko dutenekin taldea osatua baitute. Urrian hasiko dira ikasturte berriko eskolak, eta ekainera birtarte irauango dute. «Dena den, aurrerago, edozein unetan, hasteko aukera ere badago, irekia baita kurtsua».

Marce Tenak bere ikasleek iragan ikasturtean zehar eginiko «lan handia» nabarmendu du. «Denetarik landu dute: pasta modelatzen aritu dira, koadroak er-



Askotariko lanak egin dituzte, kolore biziekin. I.T.

liebean egin dituzte, kareetak landu dituzte eta collage-ak egiten ikasi dute, besteak beste». Era berean, «koloreekiko edo pinturarekiko duten zaletasuna eta jakin-mina» azpimarratu du.

Marrazketa eta adierazpen artistikoa tailerreko irakasleari ere betidanik gustatu izan zaio marrazkigintza. Bere kabuz ikasi zuten, autodidakta da, beraz. Gaztetxoentzako tailer bat zuzentzera animatu zuten, eta horrela hasi zen duela bi urte, eta oso pozik dago hartu zuen erabakiarekin, «oso polita eta aberasgarria» izan delako.

Sarituriko lanak

Bestalde, erakusketan ikusgai dauden lanen maila handiaren adierazle, bertako bi lan sarituak izan dira Donostian egiten diren bi lehiaketatan. Uxue Estibariz hirugarren izan da infantil mailan *Ura* izeneko lanarekin, Zipristin fundazioak antolaturiko txapelketan. Eta Satya Apeztegia laugarren izan da infantil mailan, *Gipuzkoa plazan udaberria* izeneko lanarekin, Tamayok antolaturiko txapelketan.

↓ Datuak

- **Erakusketa.** Marce Tenaren tailerreko 5 eta 11 urte bitarteko 16 ikasleen lanekin osatua. Koadroak, kareetak, kaxak, collage-ak...
- **Non.** Ibarako Benito Izagirre kultur etxean.
- **Noiz.** Irailaren 27ra arte, goizez eta arratsaldez.

Izaskun izena dutenen festa izango da igandean Izaskunen

I. Terradillos Ibarra

Izaskun izena dutenen bilgune izango da Ibarako Izaskun auzoa igande honetan. Urteroa iraileko hirugarren igandean egin ohi duten moduan, Uzturreren magalean bilduko dira egun pasa polita egiteko.

Eguedian, toka txapelketa egingo dute, eta jarraian baselizan meza izango dute. Mezaren ostean, Izaskun jatetxera joango dira bazkari legea egiteko. Musika ere izango dute lagungarri, Iñigo Perurena izango baita bertan, giro alai zabaltzeko eta dantzarako gonbita eginez. Izaskun izena izan eta festa berezi honetan parte hartu nahi dutenek 943 67 59 27 telefono zenbakira deitu behar dute. Etzi, larunbata, izango da izena emateko azken eguna.

Duela hamabost urte hasi ziren Izaskun izena dutenen festa antolatzen. «Arrate eta Arantzazu izenekin egiten zuten, eta guk ere hastea pentsatu genuen», dio Izaskun Elola antolatzaileak. Inguruko herrietakoak dira parte hartzen duten gehienak, baina, badira Goierriatik edota Bizkaitik ere etortzen direnak. Egundak izartzen dutela nabarmenduz, izen hori daramaten guztiak animatu dituzte antolatzaileek.

→ Laburrak

Haur eta helduen danborradan parte hartzea

IRURA › Herriko jaietan irailaren 20an egingo den haur eta helduen danborradan parte hartzeko kultura bulegoan edo liburutegian (943 69 26 74) eman ahalko da izena. Entseguak irailaren 13 eta 18an izango dira, 19:00etan, ikastolan. Bestalde, haurren bazkarian parte hartzeko hilaren 24a baino lehen eman behar da izena.

Behar Zanaren partida igandean, Villabonan

VILLABONA › Enrique Abril Errebote Txapelketaren barruan, iragan asteburuan jokatzekoa zen Zubieta-Behar Zana partida bertan behera geratu zen eurirengatik, markagailuak 4-0 erakusten zuela Zubietaren alde. Bestalde, igandean, billabonatarrek Luzaz Gazte-ren aurka jokatuko dute, Villabona-ko Errebote plazan, 11:00etan.

Sei gune handiren bueltan, zazpi kilometroko Ahora! ibilbidea prest dago

San Esteban, Usabal, Zabalarreta, San Blas, Zumardiaundia eta Lizardi plaza izango dira sei gune nagusiak

Eneritz Maiz Tolosa

Kilometroak jaiaren egun handia iristear da, eta dagoeneko ezagutzera eman dute Tolosako herrian barrena prestatu duten ibilbidea. Sei gune handi eta beste sei gune txiki izango dituen ibilbidea zazpi kilometroko luzera izango du.

Sei gune handiak, San Esteban, Usabal, Zabalarreta, San Blas, Zumardiaundia eta Lizardi plaza izango dira. Aldiz, sei gune txiki ere prestatuko dituzte Iurreamendi, Izaskun, Berazubi, Ferialekua, zezen plaza eta Maxi Eroskin. Sei eszenatoki, 26 musika talde, 11 haur ikuskizun, 15 talde ibiltari eta beste hainbat dantza, antzerki, tailer eta kirol emanaldi tartekatuko direla adierazi dute antolatzaileek, «kultur eskaintza paregabe bezain dinamikoan».

Kultur eskaintzaz gain, aukera gastronomikoa ere «ikaragarria» izango dela adierazi dute. Bi jantoki handik, zirkuituan zeharreko label produktuen aukerak, eta ohiko ogitarteko eta mokaduen eskaintzak osatuko dute. Honekin guztiarekin, denen gustuak asetu eta denen gogoia asetuko



Urriaren 6an, Kilometroak 13k izango duen ibilbidea. HITZA

dute. Antolakuntzak, ordea, kontsumo arduratsuen aldeko kanpaina abian jarriko du, eta ondokoa zein norberaren errespetuarekiko deia zabalduko ditu.

Ibilbideak kalea zein landa ingurua zeharkatuko du, beti ere ingurugiroarekiko errespetua eta hondakinen murrizte eta sailkatze sistematikoaren filosofia zainduz. Zehazki honako hauek izango dira zirkuituak erabiliko dituen eremuak: San Esteban, San Estebango lurpeko pasabidea, Arabako Etorbidea, Iurreko ibaiondoa, Usabal, Iurreamendi, Berazubi (M.J. Iraola), Kondeaneko aldapa, Zabalarreta, San Blas bidea, San Blas ermita, Zumain, Zumardiaundia, Zubiberria, Lizardi plaza, zezen plaza, Pedro de

Tolosa, Geltokiko plaza eta San Estebango lurrzapiko txikia.

Antolakuntzak eta Tolosako Udalak, alde aurretik informazio zehatza emango die kale horietako bizilagunei, bai norberaren ibilgailuarekin izan beharreko jokabideez, eta baita uanean uneko argibideez.

Azken txanpara sartzen ari dira, eta urtean zehar egindako ekitaldi eta jarduerak hilabete honetan, oraindik ere, izano dute segidarik. Bilbao Basket vs Gipuzkoa Basket saskibalo partida Usabalen, Laskorain ikastolako historiaren dokumentalaren aurkezpena, Gaunditzen elkartearen antzezpina Leidorren edota Bizikleta Martxa izango dira, besteak beste.

Tolosa&Co-ren Visa txartelarekin ordaintzeak saria du

Bezeroen artean, 10, 20, eta 50 euroko deskontuak eta 500 euroko bi txeke zozkatuko dituzte

E. Maiz Tolosa

Tolosa&Co merkatarien elkarteak, ikasturtea hastearrekin batera, kanpaina berria jarri du martxan irailerako eta urrirako. Kasu honetan, Visa txartelaren erabileraren indartzea dute helburu.

Bi hilabete hauetan, bi sustapen plan izango dira Tolosako denda, ostalaritza eta zerbitzuetan. Bi kasuetan, saritua izateko,

beharrezkoa izango da ordainketak Visa txartelarekin egitea. Alde batetik, 10, 20 edo 50 euroko erosketari egongo dira, eta bestetik, 500 euroko bi sari nagusi banatuko dituzte.

Bezeroari, Visa txartelarekin ordaintzean datafonoko txartelarekin atera ahal zaio 10, 20 edo 50 euroko sariaren zortedun dela. 500 euroko bi sari nagusiak ere, txartelarekin ordaintzean edozein bezeroari atera ahal zaio datafonoan. Sarietako bat irailaren aterako da eta bestea urriaren.

Kasu honetan, bezero saridunak, datafonoan egokitu zaion txartela bulegoan erakutsi egin beharko du, eta ordaintzen 500 euroko erosketari txekia jasoko du.

→ Laburrak

Asintxio Iturbe Asteasuko alkate ohia hil da

ASTEASU › Herenegun goizean hil zen Asintxio Iturbe Asteasuko alkate ohia 58 urte zituela. Ezker abertzaleko kideak bi legealdi egin zituen Asteasuko Udalean, 1987-1991 eta 1991-1995 legealdiak, hain zuzen ere. Atzo izan zen bere aldeko hileta elizkizuna Asteasuko elizan.

Alan Hunter irlandarraren kontzertua, Orbelan

TOLOSA › Tolosako Orbela tabernak ikasturte berriarekin batera, martxan jarri du tabernan eskaintzen duen kultur eskaintza berria. Gaur bertan, eta gaueko hamaiketarik aurrera, Alan Hunter abeslariaren musika doinuez gozatzeko aukera izango da. Irlandar musikariak bere ahotsaz gain, gitarra izango du lagun. Kontzertua entzun nahi dutenek atek zabalik izango dituzte.

Irudia



ABALTZISKETARA ETA ANOETARA, SARIAK

Atzo izan zen Ordiziako Azoka Berezia, eta barazkien lehiaketako hirugarren saria Anoetako Dani Oiarzabalek eskuratu zuen. Ganaduen saillean, Abaltzisketako Lourdes Urkiak hiru sari jaso zituen: 24-30 hilabete bitarteko bigetan bigarren saria, hiru urte eta erditik bost urte bitartekoetan

lehen saria eta hazitik sortutako urrixik onenaren Aberekingo saria ere berea izan zen. Bestetik, asteazkeneroko azokako aipamen berezia jaso zuten Baliarraingo Gorostarzu baserriko Maria Jesus Mujikak eta Irabiazpi baserriko Edurne Jauregik, eta Ibarako Montes etxeak. GOIERRIKO HITZA

Egin HITZAREN HARPIDEDUN
irailaren Tetik urriaren 31ra arte, ETA JASO:

OLASAGASTI
kontserba produktu sorta
www.conservasolasagasti.com

Harpidedun egiten diren guztien artean
SEGORE ETXEBERRI
nekazal turismoa, bi lagunentzako
asteburu baterako egonaldia*
ZOZKATUKO DUGU
*Ostrial gauetik, igande goizera PENTSIDO OSOAN.

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza

27 garagardo mota dastatzeko aukera izango da gaurtik aurrera Tolosan



Hamabostgarrenez ospatuko da Garagardo Festa, eta igandera arte luzatuko da. KLUK

Aurtengo berrikuntza nagusia, mahai tresna eta platerak material konpostagarriz eginak claudela izango da

Mikel Iraola Tolosa

Gaur arratsaldetik aurrera, Garagardo Festa ospatuko da Tolosa-ko Zerkausian. Duela hamabost tertetatik hona, Tolosa C.F. emakumezkoen txirrindularitza taldeak, Tolosaldea IKT-k, Tolosa Judo Taldeak eta Tolosako urpekarren taldeak elkarlanean antolatzen duten azoka da hau, eta igandera bitartean izango da zabalik.

Guztira, 27 garagardo mota ezberdin dastatzeko aukera izango da. Horietako bost normalak dira, eta gainontzekoak bereziak. Berezien artean, hamar hori, zazpi ilun, gorri bat eta lau beltz izango dira. Gehienak, jatorri alemaniarra dute, baina Belgikako, Txekia-

ko eta Irlandako garagardoak ere edateko aukera izango da. Tarte-an da 2010. urtean Alemaniako garagardo hoberearen saria irabazi zuena.

Jateko ere ohiko eskaintza izango da: Bratwurt eta Frankfurt motako saltxitxak, burrunzia, ukondoa, patata frijituak, saltxitxa ogitartekoa, eta postre moduan, gazta eta irasagarra, eta euskal pastela. 18:00etan irekiko ditu ateak egunero azokak, eta ostiralean eta larunbatean gauerdira arte izango da zabalik. Gaur eta igandean, berriz, 23:00etan itxiko dute, hurrengo eguna lan eguna baita. Bestalde, ostiralean, Tolosako Musika Banda kalez kale ibiliko da jatorri alemaniarra duten kantutak joz.

Aurtengo berrikuntza nagusia, jateko erabiliko den materiala guztiz konpostagarria izango dela da. «Guztia zakarretara botako da, eta konposta egingo da. Ondoren, zakarretara bota denaren emaitza ikusiko ditugu», esan dute antolatzaileek.

↓ Eskaintza

NORMALAK (2,5 EURO)

- **Damm Lemon.** Horia, 3,2°. %60 garagardo, %30 limoi eta %10 lima duen edaria.
- **Damm Bier.** Alkoholik gabea.
- **Estrella Damm.** Horia, 4,8°. Gari eta garagar maltekin egina. Laranja zapore puntua du.
- **Radeberger Pilsen.** Garagardo Horia. Alemaniara. 5°. Zapore handikoa, mikatz puntua du.
- **Budweiser.** Horia, nazioartekoa. 5°. Zapore suabea.

HORIAK (3,5 EURO)

- **Leikeim Premium.** Alemaniara, 4,9°. Usain fin eta lehorra. Zapore ona, leuna eta mikatz atsegina.
- **Leikeim Kellerbier.** Alemaniara, garagardo klasikoa. Ezti usain gozoko ukituak ditu. 4,9°.

■ **Leikeim Steinbier.** Alemaniako garagardo hoberearen saria irabazi zuen 2010ean. 5,8°.

■ **Maisels Weisse Original.** 4,9°. Legami bereziarekin egina. Zapore zertxobait pikantea. Artisanu garagardogintzakoa.

■ **Leikeim Steinweisse.** Alemaniara. Gari garagardoa, Leikeim hori zuriaren karamelu ukitu finarekin. 5,5°.

■ **Leffe.** 6°. Belgikarra, abadiakoa, eta temperatura baxuan irakindakoa.

■ **Hoegaarden.** Belgikarra. 5°. Iragazi gabea eta arre samarra.

■ **Paulaner Weissbier.** Alemaniara. 5,4°. Gariarekin egindako Baviera-ko garagardo tradizionala. Erabilitako legamiaren eraginez arre samarra.

■ **Paulaner Original Munchen.** Alemaniara, 5°. Kolore argikoa eta mikatz puntua duena.

■ **Jacobinus Classic.** Eschweiger Monastegi Agustinoan egina, garagardo disdiratsu eta zaporetsua. Ahoan sentazio fresko eta mikatz fina uzten du. 4,5°.

ILUNAK (3,5 EURO)

■ **Voll Damm.** Malta kantitate bikoitza du, gorputz eta zapore handikoa. 7,2°.

■ **Maisels Dampfer.** Legamia freskoa eta fruta usaina du. Dastatzeko atsegina. 5,2°.

■ **Altenburger Festbier.** Alemaniara, gorputzarekin, leuna eta malta zapore atseginarekin. 6°.

■ **Altenburger Bock.** Alemaniara, artisautzako garagardo indartsua, zapore minarekin. 6,7°.

■ **Leikeim Dunkle.** Gari garagardo alemaniar beltza, legami finarekin, txigortu usaina, zitriko eta platano ukituekin. 5,5°.

■ **Affligen Dubble.** Belgikarra. Abadiakoa, artisanu garagardogintzakoa da. 7°.

■ **Paulaner Salvator.** Alemaniara, zapore atseginekkoa. Berezia. 7,5°.

GORRIA (3,5 EURO)

■ **Leffe.** Belgikarra. Abadiakoa. Garagardo horia eta beltza nahastuz egina. 6,8°.

BELTZAK (3,5 EURO)

■ **Budejovicky Budvar.** Txekiarra. Bere kolore ilunak nabarmentzen du. Karamelu mikatzaren ukitu txiki bat du eta malta txigortuaren usaina.

■ **Leikeim Scwarces.** Alemaniara. Pilsen motako txinparta, kafe eta txigortu usain ukituekin. 4,9° ditu.

■ **Bock Damm.** Gorputz handikoa. Malta zapore handia eta zertxobait gozoa. 5,4°.

■ **Guinness.** Irlandarra. Garagardo-erregina, apar krematsua. Lasai edatekoa. 5,4°.

JAKIAK

- **Bratwurt saltxitxa.** 2,5 euro.
- **Frankfurt saltxitxa.** 2,5 euro.
- **Burrunzia.** 2,5 euro.
- **Ukondoa.** 9 euro.
- **Saltxitxa ogitartekoa.** 2,5 euro.
- **Patata frijituak.** Euro 1.
- **Gazta eta irasagarra.** 2,5 euro.
- **Euskal pastela.** 2,5 euro.

BESTELAKOAK

- **Ura.** Euro 1.
- **Feskagarriak.** 1,5 euro.
- **Pitxarra.** Euro 1.
- **Txartelak.** Trianguloan.

berria bekak 2013

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabekoentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Zuzenketa-itzulpengintza arloa

beka bat

EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik uztaileira
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Eskera aurkezteko epea: 2013-09-25 • Eskera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean eskura daitezke

Aukera ezazu. Bizi Puzakitzaz **berria**



Mendizaleak arduratuta daude motozaleek mendietan egiten dituzten txikizioekin. HITZA

Inguruko mendietan modu egokian ibiltzen ez diren motozaleen jarrera salatu dute eskualdeko mendizaleek. Arrazoa, kezagarria da: pixkanaka ingurunea hondatzen ari da.

Mendien edertasuna kolokan

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Hain ederra, hain polita da ta...». Euskal Herria eta bere mendien edertasunaz hitz egiten du *Ikusi Mendizaleak* herri kantak. Ederrak dira euskal mendiak, bai, euskaldunon altxorrik preziatuenetako bat. Baina azken aldian, mendizaleek benetan ikusten dutena ez da irudi eder hori, baso eta zelai hondatuak, baizik.

Hondamendi hauen atzean zenbait eragile daude. Horietako batzuk motozaleak dira. Badira, noski, motorrez errespetuz eta legeak betez gozatzen dutenak, baina baita hori egiten ez dutenak ere. Tolosaldeko eta Goierriko mendizaleak oso arduratuta dira horrekin, eta Gipuzkoako Foru Aldundian salaketa bat ipini dute, «pixkanaka-pixkanaka, kalte handiak era-

gin etan mendiak gero eta gehiago hondatzen ari direlako».

Juan Luis Irazustak eta Bixente Iguaranek, Aizkardi mendi elkarteko kideek, azaldu dutenez, motoak –enduroak– pistetatik ateratzen direnean sortzen da arazoa: «Pistetatik ibiltzen dira batzuk, eta horren aurka ezin da ezer egin, eskubide osoa baitute bertan ibiltzeko. Baina arazoa pistetatik ateratzean sortzen da, basoetan bide berriak egiten baitituzte. Baso horietan zirkuitoak sortzen dituzte, zailtasunen bila, euren abilezia proban jartzeko», salatu dute mendizaleek.

Bide berriak bakarrik ez, kalte gehiago ere eragiten dituzte motoek: «Potentzia handiko motoak direnez, zulo handiak eragiten dituzte lurtean, bidezidor modukoak. Horrez gain, zuhaitzen sustraien gaitetik pasatzen badira, batzuetan airean geratzen dira, eta ho-

rreku zahaitzen biziraupena asko murrizten du. Inguruko abereak ere uxatu egiten dituzte, eta arriskutsua izan liteke hori». Arazo horiek areagotu egiten dira motozaleak taldeka aritzean.

Eskualdean bakarrik ez

Amasa, Belabieta, Loatzo, Berastegi inguruak... eskualdeko hainbat lekutan antzeman dituzte kalteak mendizaleek, baina arazoa «haratago» doala ohartarazi dute: «Arazo hau ez da geurea bakarrik, Gipuzkoako beste bailara batzuetan ere gertatzen ari da, Deskarga, Lastur eta Murumendi aldean adibidez».

Inguru horietan kontrolik ez dagoela nabarmendu dute Aizkardi kideek, eta ondorioz, kanpotik ere etortzen dira motozaleak. «Beste toki batzuetan, Nafarroan adibidez, ez da hainbeste gertatzen horrelakorik, mendiak babes-

tuago dauzkatelako, eta legedia ere garatuagoa delako. Hemen ez dira legeak betetzen, eta ez dituzte betearazten. Horregatik asko gure eskualdera etortzen dira, lasai ibil daitezkeelako. Badakite non dagoen permisibitate handiagoa». Hori dela eta, neurriak hartzea «beharrezkoa» dela diote Irazustak eta Iguaranek.

Aldundia lanean ari da

Hori kontrolatzeko eskumenak aldundiari dagozkio, eta Ismael Mondragon, diputazioko Basogintza eta Natura Inguruneko zerbitzulariaren arabera, jakinararen gainean daude. «Udalen bitartez hainbat salaketa iritsi zaizkigu, eta irtenbideak bilatu nahian gabilta», aitortu du.

Martxoan, esaterako, prentsa ohar bat zabaldu zuten kontzientziazteko helburuarekin. Bertan, mendian motorrekin ibiltzeko

baldintzak gogorarazten ziren, hala nola, pistetatik ibili beharra, itxiturak eta abereak errespetatzea, oinezkoen lehentasuna ematea, edota pista eta parke naturalako seinaleak errespetatzea. Txapelketak edo frogak egiteko baimen bereziak behar direla ere gogorarazten zen bertan.

Hala ere, nahikoa ez dela ikusita beste pauso batzuk ematen hasi direla azaldu du Mondragonek: «Ahal duguna egiten dugu, agian ez da nahikoa. Basozain eta ertzainek kontrolatzen dute, izan ere, kontuan hartu behar da ibilgailu horietako asko ez daudela matrikulatuta ere. Ertzaintzarekin elkarlanean gaude, puntu konfliktiboan identifikatu eta mapa bat osatzen ari gara, puntu horietan



Pistetan ibiltzen direnek eskubide osoa dute, arazoa horietatik irteten direnean sortzen da»

BIXENTE IGUARAN

Aizkardi Mendi Elkarteko kidea

«Puntu konfliktiboan identifikatu ditugu eta puntu horietan kontrola handituko dugu»

ISMAEL MONDRAGON

GFAko Ingurumen zerbitzularia

kontrola handitzeko». Hala ere, zaintza gehiago egitean, praktika honetan ibiltzen direnak beste leku batzuetara mugitzeko arriskuak jarraituko duela ere ohartarazi du. «Kontzientziazte egin behar da».

Iguaran, ordea, ez dago aldundiko ingurumen zerbitzulariarekin guztiz ados: «Gure inguruan ez dugu kontrol gehiago sumatu. Agian eremu naturala egin dute hori, baina gure mendi txikietan ere beharrezkoa da».

Bi aldeak batzeko deia

Mendizaleen hitzetan, alde guztien artean adostasun bat bilatu behar eta nahi dute, hori dela eta bilera bat egiteko deia zabaldu die nekazari, motozale, mendizale eta administrariei. «Araudia betearaztea da nahi dugun bakarra». Hori, eta mendien edertasuna bere horretan mantentzea.

**Tolosaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
Faxa: 943 65 00 18
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona-aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
beste 77
eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

XVII. Udako Argazki Lehiaketa



URETAN GALTZEN DIREN BEGIRADAK

XVII. Udako Argazki Lehiaketa era guztietako argazkiak jasotzen ari da. Kasu honetan, Ane Aldalur eta Maider Aldazabalen argazkiak dira. Lehenak, Austriako Traunsee izeneko lakuan ateratako argazkia da, eta bigarrena, Enpuriabravako hondartzan ateratakoa da. Hilaren 23a, astelehen bitartean thargazkiak@hitza.info helbide

elektronikora argazkiak bidalitz lehiaketan parte hartzeko aukera dago. Lehen hiru argazkiek saria jasoko dute. Lehenak Bermeoko Lurdeia landetxean asteburuko egonaldia eskuratuko du. Bigarrenak, Tolosako Beti-Alai jatetxean bi lagunentzako otordua eta hirugarrenak, Txindokiko Itzala parkerako sarrera pareta. ALDALUR / ALDABAL

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

- **Ikaztegieta.** Ikaztegieta Udalak erretirodunentzako irteera antolatu du. Hilaren 19an, ostegunean, izango da, eta Lizarra eta Iruñea bisitatuko dituzte. Bazkaria, Iruñeko Baserri jatetxean izango da, eta pertsona bakoitzak 25 euro ordaindu beharko du. Izena hilaren 16a baino lehen eman beharko da Ikaztegieta udaletxean.
- **Tolosa.** Erretirodun eta pentsiodunen elkarteak elkarretaratzea egingo du, 19:00etan, Trianguloa plazan. Gazteei parte hartzeko deia egin diete.
- **Zizurkil.** Ziotza pilota eskolak, ikasturte berriko izen ematea zabalik du. 7 urtetik gorako neska-mutiek eman dezakete izen-

na. Hilaren 16ean hasiko dira entrenamenduekin.

ZINEMA

- **Tolosa.** Gaur, Leidorreko zine aretoan, zine foruma izango da. 19:15ean eta 21:45ean, *Vertigo* filma ikusteko aukera izango da, jatorrizko bertsoan.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amaroitz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Onditz. 3 urte eta 3 muku. Zorionak bihotzez, aiton-amona, osaba-izeba eta gurasoen partetik.

KLIKMETROAK

Klik eginez, egin metro bat kilometroen alde.

klikmetroak.kilometroak.net/metroa

